

Paula Kasares

IRAKASLEA

Gameluak eta irakasleak

Duela hilabete batzuk César Vidal COPE-ko esatariak euskararen gainean errandakoa zabaldu zen gure artean. Euskara hizkuntza primitiboa dela ez baitu unibertsalik atzematzen. Euskara partikularretan oinarritua dela (pagoak, pinuak, makalak...), unibertsalik dagoenentz ere somatzen ez duen giza adimen erabat garatu gabeari lotua. Horregatik, unibertsala adierazteko (arbola) hizkuntza mailegura jo behar izan duela.

Anitz izan ziren erreazioak eta erantzunak. Nik ez nion erantzun, baina lagun filologo batzuen erantzun idatziak irakurri eta gozatu nuen haiek emandako erantzunez.

Ia ahantzita nuen kontua, duela bi aste artio. Errefuxiatu sahararren kanpamentuetara berriki egindako bidaia kontatu nien Unibertsitateko lankide batzuei. Filologo eta antropologo senak bultzaturik nola animatu nintzen, ohiko agurrez gain, hassania hizkuntzaren hitz batzuk gehiago ikastera. Sahararrek te hartzearen zeremonia solasean aritzeko bereziki probesten baitute, tea edaten ari gineneko batean hasi nintzaiei galdezka. Gamelua, adibidez: “Nola erraten duzue gamelua?” galdegin nien. Eta haiek, berehala erantzun ez eta galdegiten hasi zitzaizkidan: “Gamelu arra ala emea? Gamelu umea ala gamelu heldua? Gamelu...”



MIKEL SAIZ

Gamelu bakarra ala gamelu taldea? Gamelu ar taldea, gamelu eme taldea ala gamelu ar-eme taldea?...”. Guztietarako hitzak zituzten. Adibidea egokia ez zela pentsaturik, bertze bat eman nien: te ontzia, hain justu, tea edaten ari baikinen. Haiek berriz: “Te ontzi handia ala txikia? Bertakoa ala kanpotik ekarria? Egunerokoa ala berezia?”. Horietarako ere hitz andana zuten. Etsirik, *gamelua* eta *te ontzia*, edozein, edonolakoa, edonongoa, edozertarakoa... nola erraten duten ikasi gabe geratu nintzen.

Lankide erdaldunei ari nintzaiei pasadizoa kontatzen eta, haien irri artean, bat-batean irrati ultra-katolikoko esatari hark errandakoaz oroitu nintzen. Momentu horretan saharar bat egon izan balitz gure artean eta galdegin izan baligu gure lanbideaz, begi bistaz denak *unibertsitateko irakasleak* izanda ere, erantzun ezberdinen parrastada hasiko zen: batek unibertsitate irakasle katedraduna erranen zuen, bertzeak irakasle titularra, hirugarrenak irakasle kontratatu doktorea, bertze batek irakasle laguntzaile doktorea, edo irakasle laguntzailea, edo irakasle elkartu doktorea, edo irakasle elkartua... Auskalo zer pentsatuko luke sahararrak gaztelaniaren gainean, akaso, haiendako gameluak bezain garrantzizkoak direla unibertsitate irakasleak gurean. ■

« ‘Nola erraten duzue gamelua?’

galdegin nien. Eta haiek,

berehala erantzun ez eta galdegiten

hasi zitzaizkidan: ‘Gamelu arra ala emea? Gamelu umea ala gamelu

heldua? Gamelu...’

»

TXANDAN

Amatiño



Hainbatek idatzi genuen duela zenbait urte Kiotoko protokoloaren atzean ez zegoela zaletasun ekologikoa, lobby nuklearra baino. Alegia, Kiotoren protokoloa ekologismoaren panazeatzat aurkeztu arren, interes nuklearren estrategia besterik ez zela. Beste modu batez esanda, Kiotoren helburu utopikoak ez zirela energia berriztagarrien ildotik etorriko, nuklearraren alternatibatik baizik.

Egun nekez uka ditzake inork: 1. Energia dela munduko ekonomiak duen arazorik larrienetakoa. 2. Eskabide asko eta eskaintza gutxi duen produktua ez dela merkatu-

Energiaren aukera

ko, garestitu baino. 3. Energia fosilak, amaikorrek direnez, ez direla lehengo prezioetara itzuliko. 4. Energia berriztagarriak garestiak direla eta nuklearra, aldiz, merkea.

Eta, honen guztiaren inguruan, ezin ahaztu bi gauza. Bat, energiari garbiena kontsumitzen ez dena dela. Bi, ekopuntuen arabera, energia-motarik kutsagarrienak, txarretatik txarrenera, honako hauek direla: lignittoa, petrolio, ikatza, nuklearra, eguzki-indarra, gas naturala, colikoa eta minihidraulikoa.

Beraz, aukeran, logikak zera dio: zentzuz jokatzekotan atzekoz aurrera ekin beharko genukeela. Beste guztia nor bere burua egainatzea baino ez dela. ■